

# ZIBERKRIMINALEK GEHIEN ERABILTZEN DITUZTEN 10 TEKNIKAK



... enpresa bati eraso egin nahi diotenean

- 01 Spear phishing erantsia**  
Erasoaldi baten hasieran **fitxategi gaizto bat erantsita** duten e-mailak bidaltzea da, informazio konfidentziala lortzeko edo sistema kolokan jartzeko.
- 03 Fitxategi itsutuak**  
Antivirusak eta horrelako babes-sistemak saihesten saiatzen da, fitxategi gaiztoak zifratu eta **kodea analizatzea zailtzeko**. Hala, exekutatu arte ezingo da jakin maltzurra den ala ez.
- 05 Windowsen komando lerroa**  
Programa honi **cmd.exe** esaten zaio. Sistema-administratzaileek, garatzaileek eta erabiltzaile aurreratuek baliatu ohi dute, eta maiz erabiltzen da erasoak egiteko ere.
- 07 Erregistroaren hasierako sarrera / Hasierako karpeta**  
Sisteman irautea eragiten du, **hasierako karpeta bati programa bat** gehituz, edo Erregistroaren exekuzio-gako baten bidez haren aipamena eginez.
- 09 Fitxategiak ezabatzea**  
Teknika honen funtsa eraso bat egon dela agerian uzten duten fitxategiak ezabatzea da, **bidegabe sartzeko unean bertan edo geroago, ahalik eta aztarna gutxien** uzteko helburuz.

- 02 Fitxategi gaiztoak**  
Erabiltzaileak jomugako gailuan fitxategi gaizto bat zabaltzea da xede. Gehien erabiltzen diren luzapenak **.doc, .pdf, .xls, .rtf** eta **.exe** dira.
- 04 Powershell**  
Berez dago **Windows sistema eragilean**. Erasotzaileek hainbat gauzatarako erabil dezakete: informazioa bilatzeko, kodea exekutatzen eta Internetetik diskora eta memoriara fitxategiak deskargatzeko eta exekutatzen, besteak beste.
- 06 Sarbide-tresnen transferentzia**  
Erasotzaileek tresnak edo bestelako artxiboak transferitzen dituzte komando- eta kontrol-kanalaren bidez, edo **FTPa eta halako protokoloak** erabiliz.
- 08 Web protokoloak**  
Ziberkriminalak erasandako sistemekin harremanetan jartzen dira **web trafikoari lotutako geruza-protokoloak** erabiliz, trafiko horretan nahasita detektatuak edo iragaziak ez izateko.
- 10 Programatutako atazak**  
Erasotzaileek Windowsen Ataza Programatzailea baliatzen dute **sistema abiatzean exekutatu den kode gaiztoko ataza** bat jartzeko, iraunkortasuna mantendu dezan edo errepikaria izan dadin.

Zibersegurtasun intzidente bat izanez gero...  
berehala jakinarazi behar zaio antolakundeko arduradunari.  
Gurekin harremanetan jar zaitezke **900 104 891** zenbakira deituz edo **arazoak@bcsc.eus** helbidera e-mail bat bidaliz.

